



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2019ko abenduaren 13koa, 2019-2020 ikasturtean ikertzaile ez doktoreen doktoretza-aurreko formakuntza-programako berriztapenak emateko 2019ko abenduaren 11ko ebazpena aldatzen duena.

Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 18ko Aginduaren bidez, (2019ko ekainaren 27ko 121 zbk. EHAA), 2019-2020 ikasturtean ikertzaile ez doktoreen doktoretza-aurreko formakuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitu zen.

2019ko abenduaren 11ko ebazpenaren bidez, aipatu laguntza horien berriztapenak ebatzi ziren.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Ebazpeneko eranskinetan aurkitutako akatsak direla eta

E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- II eranskina aldatzea.

Bigarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 13a



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA